

**Odol-emaleei  
aitortza  
Irurtzunen**



**Sakanerria >> 6**

**Sakanako Aizkora Eskolan izena  
emateko epea zabaldu da.  
Martxoan hasiko dira eta asteen  
bitan izanen dira saioak**



**Kirolak >> 13**

**Parte  
hartzearen  
sustapena  
Burundan**

**>> 8**

**Euskaltegiek  
Gobernuari  
zor diena  
eskatu diote**

2013an deialdia egin ondoren gobernuak ez zuen dirurik eman. Deialdia aurki egitea eskatu diote

**>> 7**

**Mediku eta  
erizainak  
erreformarekin  
haserre**

**>> 9**

**Martxotik  
antzerki  
tailerra  
Urdiainen**

**>> 15**



Udala eta biok euskaraz kanpainaren bidez EHEko kideek eta laguntzaileek sakandarrak udalekin harremanak euskaraz izatera animatu dituzte.

## Udalarekin harremanak euskaraz izateko eskaera

**>> 7**

**Bi altsasuar Olloko  
aterpe guztiz  
irisgarriko kide**

**>> 9**

**Sakanan agertutako  
hiru aztarna  
erromatarren berri**

**>> 5**



**Sakantzen  
Sarearen  
asmo  
berriekin**

**>> 3**



**Bardoak,  
gaur Etxarrin  
eta etzi  
Barañainen**

**>> 14**

**ZURE NEGOZIOA  
GIDAN  
IRAGARTZEKO  
DEITU**

948 56 21 07  
618 88 26 27



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE  
REMOVE  
PLANA

%20<sup>ra</sup>  
arteko  
deskontua

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Oihan Escudero  
Gamboa**

Otsailak 24, gure etxeko txapeldunak 8 urte beteko ditu. ZOOORIOONAK familiaren partez. Muxuak!!!



**Aitor  
Arruabarrena**

ZORIONAK zure hiru-garren urtebetetzean. Muxu handi bat aitaxta amatxoren partez.



**Oier eta Unai  
ZORIONAK** eta muxu asko etxekoan partez!!



**Eva Luna  
ZORIONAK**  
Eva Luna!! Zuganako maitasuna ez zaigu etxean kabitzen. Muxu asko. Etxekoak.

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**Bikoitza:**

**3,50€**

**7€**

## otsailak

# 21-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Los Pistatxos.** Otsailaren 22an, larunbatean, 00:00etan Olatzagutiko Clinker tabernan.

### Antzerkia

**Epa!** Otsailaren 21ean, ostiralean, 21:30ean Irurtzango kultur etxean. Demode Quartet

**Pantxika Lamur: Lo tendré que hacer yo & cia.** Otsailaren 22an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Zirika Zirkus.

**La bella y la bestia.** Otsailaren 23an, igandean, 18:00etan Irurtzango kultur etxean. Iruñeko saletarren antzerki taldea.

### Zinema

**Sobran las palabras.** Otsailaren 21ean, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Inch'allah.** Otsailaren 21ean, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Caminando entre dinosaurios.** Otsailaren 23an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.



La bella y la bestia antzezlanaren irudi bat.

**Braveheart.** Otsailaren 23an, igandean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

### Mendi irteera

**Andoain-Plazaola.** Otsailaren 23an, igandean. Sakanako Mendizaleak.

**Urbasa, berezia.** Otsailaren 23an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

### Txirrindula irteerak

**Arabako Lautada.** Otsailaren 23an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 68 km.

### Erakusketak

**Pintura eta eskultura.** Otsailaren

21etik martxoaren 21era arte, Urdiaingo Kaluxa tabernan. Angel Antonio Agirre.

**Gizarte parte hartzea.** Otsailaren 23a arte, ostiralean 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Egunero bi boluntario taldearen aurkezpenean. **Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.**

**Altsasuko inauteriak.** Otsailaren 24tik martxoaren 9ra, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Inauteri Batzordea.**

### Hitzaldiak

**Gaztelako herria.** Otsailaren 22an, larunbatean, 19:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlaria: Izquierda Castellanako bi kide. **Askapenaren brigadak aurkeztuko dira.**

### Tailerrak

**Mozorro tailerra: maskarak eta osagarriak.** Otsailaren 22an eta 23an, larunbatean eta domekan, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

### Bestelakoak

**Andrekunde.** Otsailaren 21ean,

ostiralean, 19:00etatik aurrera Etxarri Aranatzen.

**Lanari loturiko eskubideak.** Otsailaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Euskal Herriko eskubide sozialen karta.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

**Hipotekek kaltetutakoan Plataforma.** Otsailaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Gure ikurren alde.** Otsailaren 23an, domekan, 12:30ean Altsasuko Zelai eta San Juan kaleen bidegurutzean. **Banderaren mustutzea.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Otsailaren 24an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.net

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Udala eta biok euskaraz,  
Sakantzen Sarea, Leire Rivas...

*Esataria: Alfredo*

## SAKANA

# Enplegua sortzea begi puntuan

Sakantzen Sareak hiru proiektu berri landuko ditu ekonomia sustatu eta kalitatezko lanpostuak sortzeko

Larunbatean egindako IV. Jardunaldi Irekian Sakantzen Sareak bere jarduna birpentsatu eta aurrera begirako urratsak zehaztu zituen. Urte eta erdi dinamika jakin batekin eman ondoren "azken hilabeteetan dinamika hori aldatu beharra genuela ikusi dugu", azaldu zigun sareko kide Jon Etxeberria Ijurrak.

Saretik kanpoko pertsonen ikuspegia jasotzeko ere balio izan zigun larunbateko hitzorduak. "Ideia oso baliagarriak eman dizkigute", jakinarazi zigun Etxeberriak. Horietan oinarrituta aurrerako bidea zehaztuko du sareak. Ideia horiek ez ziren soilik sakan-darrenak izan.

Sakantzen Sarearen antzeko dinamika dago Urola Garaian, Sortzen izena du eta ibarreko esperientziaren antzera duela urte eta

erdi darama lanean. Alde bakarra, hura garapen agentzietatik sortu zela eta Sakanakoa gizarte mugimendutik. Etxeberriak azaldu zigunez, "eskaintzen dituen hainbat tresna zein diren eta ekintzaileri nola laguntzen dieten azaldu digute. Horrek balioko digu etorkizunean zerbitzuak hobetzeko".

Etorkizunerako jarduna zehaztu zuten. Larunbatean espero zutena baino jende gutxiago bildu zen, 30. Hala ere, landu nahi zituzten gaien inguruan aritu ziren eta horrekin pozik zeuden sarekideak. Etxeberriak esan zuenez, jardunaldia "oso produktiboa" izan zen, "kalitatea egon da". Eta gaineratu zuen: "Sakantzen Sarea oso tresna garrantzitsua da jendea sozialki mugitzeko eta dinamizatzeko. Lana egiten jarraitu beharra dago".

## Harremanetarako

sakantzensarea@gmail.com edo  
www.sakantzen.org



Bertako kideek beti esan dute sareko baliabide garrantzitsuen pertsonak direla. Edozeinek parte hartu dezake.

## Aurrera begira

Hiru proiektu ditu esku artean Sakantzen Sareak.

**Inkubategi kooperatiboa.** ekin behar dioten pertsonen hasieran enpresa komun baten estalpean jarduteko aukera. Horrek hasieran kostuak aurrezteko ekarriko dio.

**Ekintzaileen topaketa.** Hurrengo

hilabeteetan landuko da. Asteburuko topaketa litzateke eta ekintzaile bakoitzak bere enpresa-ekimena aurkezteko aukera izanen luke. Jardunaldia gizarte guztiari zabalik egonen litzateke. Prestakuntza saioekin eta hitzaldiarekin osatuta. "Denen arteko sinergiak eta loturak lortzen saiatzeko".

**Ideia ekaitzeko emaitzak.** 2012ko

azaroan ibarreko zortzi herrietan aldi berean egin zen ideia ekaitzean jasotako ideiak, 210, erakusketaren batean ikusgai jarriko dituzte. "Ideia horiek gizarteratu nahi ditugu. Gerta daiteke pertsona batek ideia egokirik ez izatea baina bai proiektua aurrera eramateko jarrera. Ideiak eta sakandarrak hartu-emanen jarri nahi ditugu".

# Ikastola, dena bat dator



txioka.haur.ikastola@inigoaritz.com  
948 37 30 23  
ALTSASU



IÑIGO ARITZA IKASTOLA  
ikastola@inigoaritz.com  
948 56 29 51  
ALTSASU



etxarri@ikastola.net  
948 46 02 86  
ETXARRI ARANATZ



Raf Atxuri

astekoa

## “Vuelta” S.Migelenean

Edo hobeki Jaundone Mikelean, hala baitu jatorrizko leku izena. “Vuelta” bai, ez Tour, Giro, Volta edo Itzulia. Irailaren 3an, asteazkenarekin, gertatuko da egun seinalea, Artzain Egunaren biharmonetan agian.

Errepideen egoerak dioenaren kontra txirringularen izerdiak ez dira isuriko Baraibar-ko bide aldapatsuetan, Uharte

Arakilgo asfalto zartatuan barrena baizik, etapak Arakil eta Aranazko hainbat herri zeharkatuko dituela.

Eta horra, berriz, kirol eta politikaren arteko debate herdoildua: politika eta kirola ez dira nahasi behar, dirutza ekar diezaiokete eskualdeari eta abarren abarra. Baina eliteko kirolak politikatik badu puska kozkorrik, eta

oraingoan are gehiago. Aginte espainiarrak Sakanako herriko etxeetan gorri-horia ohorez, ageriko eta nabarmen ezartzea asketsi ez eta euskaldunen mendirik santuenera “Vuelta” ekartzea ebatzi dute.

Egia da hain eskualde ttikian hainbeste txirringularen profesional izateak aitortza bat merezi duela eta Jose Luis Arrietaren

herriak egun historikoa biziko duela baina ez dut uste erabakia hartu dutenak hartantxe ariko zirenik, ezta Aralarko bazterrak eta Done Mikelen basilikaren zoragarria erakustea izanen zutenik gogoan.

Tentaldierraza da inperio zaharreko Flandesko pikan pentsatzea, kasu honetan pika sinboliko hori euskal “In excelsis” dela-

koan paratuko dute, Lizardik “Izotz ondoko eguzkia” olerkiak jantzi zuen mendi-magaletan.

Gasteiz, Iruñea zein Donostia izan dira Tour eta Vueltaren etapa amaigune eta orain Sakanari egokitu zaio txanda. Tartean izango da zertaz mintza, ezta baida eta goza. Teodosioren kateak hausten ikustea izanen dugu, ordea?

### barrutik kanpora

## Martxoak 3

Datorren Martxoaren 3an, munduko erakunde ekonomiko nagusienetarikoa izango dira Bilbon. Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa horien artean. Guretzako ez da beste egun bat izango, orain dela 38 urte Gasteizko langileen erailketa gogoratzen dugun egunean, langile borrokaren zergatia islatzen duten erakundeak gure herrira etorriko baitira bere gomendio eta hausnarke-

tak azaltzera. NDF eta BMrekin batera, BBVA, Telefonica, Iberdrola edota Inditex bezalako enpresak, eta hauen zerbitzura dauden partidu politiko ere bertan izango dira, PP eta PNV. Gutun hau hauetariko edozeini eskaini diezaiokete baina gaurkoan Nazioarteko Diru Funtsari zuzenduko gara.

Bere helburu ekonomiko asepatikoen atzean (“kooperazio ekono-

miko globala suspertzea, finantza egonkortasuna ziurtatzea, nazioarteko salerosketak erraztea, eta pobrezia murriztea”) sistema kapitalista neoliberalaren eredu mundu osoan zehar hedatzen 60 urte baino gehiago daramatza erakunde honek. Ez gara irakurketa sakonetan murgilduko eta soilik azken urteetan emandako gomendio batzuk gogoraraziko ditugu. Flexibilitatea da hauen hitz sakratua,

kaleratzeak merketu behar dira eta soldadak jaitsi, beti ere lehiakortasunaren izenean, enpresena noski. Murrizketak arlo publikoan, (hezkuntza, osasungintza, ...), hortaz, ongizate estatuak ezin du berean jarraitu eta enpresa pribatuek beregain hartu behar dituzte zerbitzu hauek. Badakizue, lehiakortasunaren mesedetan eta lanpostuak sortzeko, publikoa dena pribatu egin eta diru publikoa enpresa

privatuei eman langileen baldintzak zeharo okertuz.

Arrazoi asko dago Martxoaren 3an Bilbora joateko, hemen gutxi batzuk eman nahi izan ditugu baina askoz gehiago daude: elektrizitatearen gorakada, osasungintzako itxaron zerrendak, urtarriaren azken egunetan banku erreskatatuek aurkeztutako etekinak... Bertan ikusiko gara.

**Abian**

### barrutik kanpora

## Eredu hoberena gara beti helduok?

Antza denez, gaur egun hitz berriak sortu eta asmatzera behartuta gaude. Hitz horietako askok ez zuten zentzu handirik duela 20 urte baina orain ezinbestekoak bihurtu dira. Hitz horietako adibide bat hau izan daiteke: OVERSHARING-a. Adituek “gurasoen aldetik sare sozialetan adin txikikoen gehiegizko erakusketa” bezala definitu dute.

Gure bizitzako momentu garrantzitsuenak konpartitzeko beharra ikusten dugu eta honek sare sozialetan gure seme-alaben bizitzaren momentuak (txikitako argazkiak, bideoak...) konpartitzera eramaten gaitu kasu askotan.

Oso garrantzitsua da hainbat

gauza kontutan izatea:

- Sarean edo zer gauza igo edo zintzilikatzen badugu, berehala zabaldu egiten da.

- Gure informazioa non eta nork zabaltzen duen kontrola galtzen dugu.

- Legearen esparruan gurasoak dira txiki eta gaztetxoaren arduraren dutenak, beraz, zaintzaile papera dute prozesu guztian zehar.

Orokorrean, guraso garenok, txikiak eta nerabeak sare sozialetan nola mugitzen diren kezkatzen gaitu. Ez dugu beraiek duten erraztasuna baliabide hauek erabiltzeko eta honek beldurra ematen digu; non ibiliko

diren, norekin, zein kontaktu izango dituzten...

Beldur gara, erabilera txarra egingo ote duten edo arriskuez jabetuko ez diren. Horregatik garrantzi handia ematen diogun gaia da hau, benetan gure seme-alabek sare sozialen erabilera egokia egitea nahi dugulako, baina guk zer erabilera egiten dugu?

Gurasoen kasuan hemen agertzen da kontraesana, gutariko nork ez ditu seme-alaben edo iloben argazkiak atera eta gero lagunei bidali, whatsapp-ean argazkiak jarri, sare sozialetan zintzilikatu ... Zein politik dauden, zein jatorrak ... Baina kontutan izan dugu edo noizbait gure

buruari planteatu diogu erabilera egokia egiten dugun igotzen dugun materialarekin?

Gure seme-alabekin konparatuta ez gara hain ezberdinak, behintzat ez ditugu hain gauza ezberdinak egiten. Egia da, kasu askotan, guk ere ezagunei edo konfiantzazko lagunei bidaltzen diegula informazioa. Gazteek, berriz, dituzten “milaka” lagun horiei bidaltzen dizkiete. Sare sozialak bizitzeko eta erabiltzeko era desberdina daukagula argi dago.

Beraz, gomendagarria da gurasoontzat sare sozialak eta teknologia berriak orokorrean ezagutzea eta hauek erabiltzen ikustea,

gero gure seme-alabei hauetan hezi eta laguntzeko aukera izateko. Ezin gara atzean geratu, nahiz eta “analfabeto digitalak” sentitu. Azkenean sare sozialetan hezteak, bizitzako beste esparru batean hezteak da eta beste gauza askorekin gertatzen den bezala, gure ardura seme-alabei sare sozialak segurtasunez erabiltzen erakustea da.

Sare sozialen erabilera ona egitea eta pertsonen artean tratua onak bultzatzea da gaur luzatzen dugun gonbitea.

**Prebentzio Programak**

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Barandalla  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikako Salburuordetza

## SAKANA

## Bilatuz gero, agertzen dira aztarnak Sakanan

**Bi hilarriren zati bana eta ara votiva pusketa aurkitu dituzte berriki. Olatzagutiko ermita alboan, Uhart-Arakilgoan eta Etxarri-Aranatzen topatu dituzte**

Erromanizazio prozesua Sakanan ere izan zela agerian uzten duten beste hiru zantzu topatu dituzte. Alderik alde, eta luze zabal Sakanan erromatar garaian zeharkabide jendetsua izan omen zen. Hiru izan dira aurkikuntza berriak: bi hilarriren zati bana aurkitu dituzte eta zin-hitzak idatzirik dituen harria (ara votiva). Olatzagutiko Belengo Andra Maria ermita zenaren hondarretan topatu dute zin-hitzez idatzirik harria, eta Etxarri Aranatzen eta Uhart-Arakilen, Zamartzeko Andra Maria ermitan, izan dira beste bi hilobien zatien topaketak. Garrantzirik handiena ara votiva-ren aurkikuntzak du, alegia, zin-hitzez idatzirik harriak.

Zin-hitzeko harritzarra, uste baino garai goiztiarrekoa izan daiteke. "I edo II. mende artekoa izan daitekeela uste dugu", azaldu du Mikel Markotegi historialariak. Oso garbi eta zehatz idatzirik testua du harriak. "Zin egiteko erabili ohi ziren hitzak nabarmenak dira". Berezko ezaugarriak ditu gainera, eta Sakanako erromanizazio prozesuaz datu gehiago eman ditzakeela uste dute. Olatzagutiko ermita zegoen alboko borda bateko horma batean aurkitu zuten.

### Bila segitzeko asmoarekin

Arrastoak eta zantzuak bilatzen dabil lagun talde bat. Sakanan barrena mendi eta herri inguruak miatu eta aztertzen dituzte. "Erromatar garaiko edo lehenagoko aztarnez beteta dago Sakanan, arazoa da ez dela bilaketa lan handirik egin, baina bilatuz gero aurkitu egitenda", ohar-tarazi du Markotegi. Oraingoz, lagun taldean aritzen dira, baina elkarte bat sortzeko asmotan ere badabilta. Norbaitek interesa izanen balu Mikel Markotegirekin harremanetan jar daiteke mezu bat bidalita helbide honetara: [jmmarko@hotmail.com](mailto:jmmarko@hotmail.com).

Bertatik hartu eta aztertu ondoren, bordara itzuli eta bertan jarria dago, gordeleku gisa.

Hilobi biren arrastoak dira beste bi aurkikuntzak. Lehenengoak, ez du forma zehaztua eta goiko alde zehatz behoko parte hautsiak ditu. Hizkiak ere zaindu gabeak, eta ez da ulertzen erraza. Idazteko moduagatik, garai zeltetako izan daitekeela diote. Bigarrena, berriz, hilobi baten estalki gisa erabili zelakoan daude, itxura hori hartu diote. Erdi Aroko garaikoa dela ere antzeman daiteke.



**Ezkerrean** Zamartzen opatutako hilari baten beheko parte, erdi aroko hilari bat estaltzeko erabili zena. **Moldura** simple bat du. II. edo III. mendekoa izan daiteke. **Pliniok** Uharten kokatutako Aracilitanarren aurreneko lekukotza idatzia da oraingoz.

**Eskubian** Olatzagutian opatutako ara-ren puska. Ikerlarien ustez kontserbatu den zabaleraren bikoitza izan zezakeen. Ez zuen moldurazko oinarri izan. Gizaldiko aurreneko mendeetako izan daitekeela diote.



**Etxarriko Konzezio ermita** zahar berritzean opatu zen hilaria. **Gutxi** arbastua, horregatik idazteko eremua irregularra da. **Idazterakoan** trebetasun gutxi izan zuten eta begi kolpean irakurtzea zaila da. **Calaetus** aipatzen du, zeltiarren Kalaitos izenaren eraldaketa erromatarra. **Olatziko** aurreneko batera, ikertzaileei pentsarazi die erromatar garaiko Sakanako onomastika nagusiki zeltiarra zela. **Aurreneko** bi mendetan datatua.



## Osasun etxeak erreformaren kontra

**Medikuek eta erizainek euren lan baldintzak okertuko direla salatzen dute**

Nafarroako Gobernuak landa eremuetako arreta jarraitua eta urgentziakoa aldatzeko erreforma proposatu du. Marta Veraren departamentuak egindako proposamen berriak duela urte bat oposizioak Nafarroako Parlamentuan atzera bota zuena ordezkatzen du. Osasungintzako gehiengo sindikala (SMN, LAB eta ELA) erreformaren kontra agertu da. Baita Nafarroako landa eremuko 33 osasun etxeetako 30 zuzendari ere. Horien artean daude Sakanako hiruak: Irurtzungoa, Etxarri Aranatzkoa eta Altsasukoa.

Etxarri Aranatzen medikua den Antonino Goikoetxeak esan digunez, mahai gainean jarri den erreformak jendeari ez dio ezertan eragiten: "osasun etxeak goizetik 20:00etara egonen dira zabalik. Eta gaur beste mediku

batzuk etorriko dira".

Antolaketan dago aldaketa, Goikoetxeak esan digunez, erizainen eta medikuen lan baldintzak okertzen dituelako. Erreforma zirriborroan jaso denez, lanaldia 15:20an bukatu ondoren 20:00etara ino mikrozaintzak egin beharko lituzkete. Gaur egun arratsaldeko orduetgia Landa eremuko Larrialdi Zerbitzuko (LLZ) kideek betetzen dute. Aldaketarekin, arreta jarraituaren parte izanen da eta mediku eta erizainek egin beharko dute; 12 orduko lanaldiak. Gaur egun hilean bi zaintza egiten dituzte eta hurrengo egunean atsedean hartu. Mikrozaintzekin hilean lau lirateke zaintzak eta ostiral eta jaiegunen bezperetan 15:00etatik hurrengo eguneko 8:00ak arte ari beharko lukete lanean. Zaintzen ondoren atsedean ere hartu behar dute eta erreforma gauzatuz gero osasun etxeetan antolakuntza arazoak aurreikusi dituzte.

Gainera, ordu extrak bezala ordaindu beharrean, zaintza baliara bezala ordainduko zaie. Horregatik, erreforma geldiaraztea eskatu dute. Gainera, kexu dira erreforma lantzerakoan ez direlako haiekin harremanetan jarri.



Irurtzungo osasun etxea.

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

etxeako aseguruetan  
**%25**eko  
deskontuak  
eta, gainera, etxetresna  
elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN

**MAPFRE ALTSASU**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM [jimazpr@mapfre.com](mailto:jimazpr@mapfre.com)  
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

## » Irurtzun



Domina jaso zuten irurtzundarrak. UTZITAKOA

## Bederatzi aitortza odol-emaileen festan

Nafarroako Odol-emaileen Elkarte, Adonako burua, Jesus Mari Mas presente zegoela, otsailaren 9an Irurtzuno odol-emaileen euren festa ospatu zuten. Masek bildutakoei haien inguruan odol-emaile berriak egiteko eskaera egin zuten. Eta gazteei dei zuzena egin zien, boluntario izan eta odo-

la ematera joateko. Horretarako, autobusa herrira etortzen denean handik pasatu besterik ez dela egin behar gogorazi zuten.

San Martin jubilatutako elkartearen egindako topaketan bai presidentek baita elkartearen irurtzuno ordezkariak ere, 9 odol-emaileen ekarpena aitortu zuten. Aipamen

### Datuak

Irurtzunen 232 odol-emaile daude. Haietatik pasa den urtean 75 eman zuten odola, guztira 139 emate; guztiak ere ohiko odol-emaileak. Gehien gehienak autobusa, autohemoteka, Irurtzunera etorri zenetan eman zuten. Pasa den urtean, bestalde, 10 odol-emaile berri egin ziren.

berezia merezi izan zuen Francisco Jose Juango Francok, urrezko domina hirukoitzak eskuratu zuelako. 50 alditan odola emateagatik urrezko domina jaso zuen Migel Angel Orrio Sotilek. Eta 25 aldiz odola emateagatik zilarrezko domina bana eskuratu zuten Agapito Bello Gascok, M<sup>a</sup> Teresa Zia Marcapidek, Jose Luis Gonzalez Lopezek, Julian Moral Espozek, Eduardo Ramirez Legarrak, Migel Anjel Rekalde Maestrek eta Inmaculada Zubietta Zubillagak. Azken horrek ezin izan zuten ospakizunean egon.

## » Arbizu

## Ikasle bikainarendako beka



Joan den urtean beka jaso zutenak. ARTXIBOA

Egun Batxilergoko lehen ikasturtean dauden eta DBHko 4. mailan espediente akademiko onena izan duten ikasleak saritzea erabaki du Goierri Eskolak bigarren urtez. Euren ingeles eta Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) maila hobetzeko beka jasoko duten hiru ikaslearen artean Intza Insauti dago. 16 urteko arbizuarrek batz besterik bederatziko nota du. Ikastetxeak diploma eta txeki bat eman zion, azken horrekin klaseen gastuei aurre egin diezaion (560 euro gehienez). Gainera, hiz-

kuntzen titulazioa lortzeko azterketa gainditzen badu azterketako matrikula ere ordainduko dio.

Aurreko urtean beka jaso zuten bost ikasleetatik lau sakandarrak ziren: Laida Etxeberria (Bakai-ku), Nerea Martínez (Altsasu), Lide Agirre (Olatzagutia) eta Ibai Irigoien (Etxarri Aranatz). Beka horiekin Goierri Eskolaren helburua bikaintasun akademiko sustatzea da eta prestakuntza ibilbide bikainak sendotzea, administrazioak egin dituen murrizketetatik kanpo.

### Inauteriak

## » Olatzagutia



Gaur Mari Arroka txanda izanen da, eta bihar ihote segizioarena.

## Hasteko, herri ihotea

Urteroko hitzorduari segituz, Urbasako Auzkolarrero kobazuloan bizi den Mari Arroka jainkosa gaur jaitziko da Olatzagutira. Hitzordua 20:00etan du jarria olaztiarrekin, San Migel plazan. Aurretik hari ongi etorria egin eta behar bezala moztortzeko, gaztetxean elkarrekin moztortzeko hitzordua dago jarria 19:00etan. Mari Arroka agurtu eta parte-hartzaileendako auzatea izanen da ondoren gaztetxean.

Bihar, Maisuenea gaztetxeak herri ihoteko bazkaria hartuko du, 14:30ean. Ihote segizioa 18:30ean

### Gehiago

#### » Martxoak 1, larunbata.

#### Hiri ihotea

**12:00etan** Areto futboleko pista eta moztortuen kalejira egingen da herrian barna.

**14:30ean** Herri bazkaria izanen da frontoian.

**17:00etatik 19:00etara** Baralde Txaranga.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia

plazan (eguraldiak lagutzen ez badu frontoian).

**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia plazan.

#### » Martxoak 4, asteartea.

#### Haur ihotea

**17:00etan** Merendua eta haur animazioa: a ze nolako parranda.

**22:30ean** Sardinaren hileta. Hiletarako egoki jantzi. Gaztetxetik San Migel plazara.

Ihoteen bukaeran torradak gaztetxetan.

abiatuko da areto futboleko pista. Herrian barnako kalejira egingen dute Mari Arroka lagun diren zamarraundi eta zamartxi-

ki bihurriak, maskarritak, iratxoak, damak eta sorginak. Ibilbidea plazan bukatuko dute eta zortziko dantzatuko dute hantxe.

## » Altsasu

## Inauteriak erakusketara

**Inauteri Batzordeak antolatu du erakusketa, Altsasuko 4 ikastetxeetako guraso elkarteekin batera. Asteartean mustuko da, 18:00etan, Iortia Kultur Gunean**

Asteartean mustuko da Altsasuko Inauteri Batzordeak Altsasuko ikastetxeetako guraso elkarteekin batera antolatutako erakusketa: *Altsasuko inauteriak*. Iortia Kultur Guneak hartutako erakusketa martxoaren 9ra arte egongo da ikusgai.

### Ikasle lanak

Inauteri Batzordeko Javi Bergarak adierazi digunez "urtero moduan guraso elkarteekin jarri gara harremanetan eta ikastetxe bakoitzean inauteria gaia hartuta ikasleek egin dituzten marrazkiak, eskulturak eta beste izango dira erakusketan ikusiko direnak. Horretaz gain, Iortia moztortutako dugu,

zaku zaharrek eta tresna zaharrek". Bergarak gaineratu duenez, Jose Manuel Herrero "Zapak" egindako 4 buruhandi jarriko dira erakusketan: akerra, maskarita, momotxorrea eta juantramposoa.

### Astearteko mustutzea

Asteartean, 18:00etan mustuko da erakusketa, Iortian. "Ekitaldira Inauteri Batzordekoek Altsasuko inauterietako pertsonaia guztiak eramango ditugu. Moztortuta gaudela, antzerki txikia egingo dugu, pertsonaia zeintzuk diren eta haien ezaugarriak azaltzeko" azaldu digu Bergarak. Ekitaldi horretan bertan Inauteri Batzordeak 2012ko inauterietan grabatutako bideoa aurkeztuko du. Jaki-na, erakusketa auzatearekin des-pedituko da.

### Asturiasera



Altsasuko Inauteri Batzordeko 28 kide Asturiasera joango dira asteburuan, Valdesotoko Neguko Maskaraden 7. Jardunaldietan parte hartuz. Ostiralean Altsasuko 3 kidek Altsasuko inauteria nola berreskuratzen azalduko dute, Valdesoton antolatutako hitzaldi baten barruan. Larunbatean, Portugal, Leon eta Asturiaseko beste 10 inauteri taldeekin batera, 18:00etan abiatuko den kalejiran parte hartuko dute altsasuarrek, eta, ondoren, Altsasuko inauterian antzezpena egingo dute.

## » Etxarri Aranatz



### Txatarrak atzera ere

Atzokoan elkartez elkarteko segizio batek Andrekude eguna ospatu zuen, Etxarriko ihoteetako bigarren jai-eguna. Horretaz aparte, oihiturari segituz, Etxarriko hainbat familietako emakumeak bildu eta elkarrekin afaldu zuten. Azterketak direla eta, kintoeke euren kuestazioak ostegunetik ostiralera aldatu dituzte eta gaur txatarrak jantzitako kintak, musika lagun, eskean aterako dira. Bildutako jakiekin Andrekude afari ederra egingen dute.

## SAKANA

# Udalarekin euskaraz

**EHEk mezu horrekin bat egiten duten sakandarrak euren udalari harremanak euskaraz izateko eskaerak egitera animatu ditu**

Udala da herritarrongandik hurbilen dagoen administrazioa eta baditu hizkuntza politika egiteko kompetentziak. Hori kontuan izanda, Euskal Herrian Euskarazek (EHE) *Udala eta biok euskaraz* dinamika jarri du martxan. Eragile euskaltzaleko kideek aurkezpenean aurreratu dutenez, "udalari euskaraz bizitzeko dugun nahia errespetatu eta honekiko harremanak euskaraz izateko dugun eskubidea bermatzeko eskaria bideratuko diogu".

Horretarako, EHEk sakandarrak aktibatu nahi ditu: "euren eskari zuzen eta borondatek abiatuta, aldaketak eragin eta norbanakook herriko etxe zein udalera ditugun harremanak euskaraz izan daitezten". Hala, herritar bakoitzak bere udalari

euskarazko harremana nahi dela adieraziz idatzi sinatuak aurkezteko eskatu du EHEk; idatzi ereduak ere prestatu ditu. Udalak euskarazko harremanetan dituen hutsuneak detektatu eta haiek zuzentzeko eskatuko dute. Eskaera jakinen atzean eragile euskaltzaleak pertsona talde zabalak elkartu nahi du.

Lakuntza, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Altsasuko herritarrak aurkieskaerak aurkezten hasiko direla aurreratu dute EHEtik. Euren nahia, hala ere, Sakanako 15 udalera iristea izanen da eta horretarako lanean ari dira. EHEko kideek euren ekimena horrela laburbildu dute: "euskararen herrian bizi gara. Euskaraz bizitzeko eskubidea dugu eta euskaraz bizi nahi dugu. Udal administrazioarekiko harremanak euskaraz nahi dugu".



EHEko kideek sakandarrari dei egin diete udalarekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

## » Etxarri Aranatz

## Frankismoko biktimen auzian deklaratu du Etxabek

Asteartean, Madrilgo Argentinako kontsuletxean eta bideo konferentziaz,



Jon Etxabek Maria Servini epaile argentinarraren aurrean deklaratu zuen. Modu hori erabiliz deklaratu duten frankismo garaiko aurreneko biktimetako bat izan da Etxabe. Apaiz ohia eta Burgosko prozesuan auzipetua, ordu batez eman zituen azalpenak.

1969an atxilotu zuteneko, zazpi egunetako torturak eta espetxealdiko giza eskubideen urraketen berri eman zizkion Etxabek epaileari. Torturatzaileen izenekin batera, Zamorako espetxea estatuarena eta elizarena zela gogorarazi zuen. Burgosko prozesuaren berri emanez despeditu zuen deklarazioa. Epaile baten aurrean halakoak esateko aurreneko aldian zela eta, pozik zegoen Etxabe.

## SAKANA

# Nafarroako Gobernua euskaltegiekin zorretan

**2012ko lastailetik ez dute diru-laguntzarik jaso, nahiz eta pasa den urtean deialdirako dokumentazio guztia aurkeztu**

Nafarroako Gobernuaren egoitzaren aurrean kontzentratu ziren herenegun AEKko eta IKAKo kideak. Eta hala egiten segituko dute hilero, Nafarroako Gobernuak zor dien dirua jaso arte. 2012ko lastailetik euskaltegiek ez dute laukorik jaso eta zor zaiena besterik ez dira eskatzen ari. Izan ere, joan den urtean Euskarabideak euskaltegiendako diru-laguntza deialdia egin zuen, 245.000 euro banatzeko. AEKk eta IKAK beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu zuten, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen dirurik banatu.

Herenegungo protestan joan



Egoera konpontzen ez bada AEK eta IKAK euskaltegiak hileroko joan den diru-laguntzaz. UTZITAKOIA

den urteko diru-laguntza eskatzearekin batera aurtengo deialdia lehenbailehen egiteko eskatu zuten. Euskaltegiak ordezka-

riek adierazi zuten, "administrazioak egin beharreko lana egiten dugu; zerbitzu publikoa da egiten duguna, eta gobernuak

ordaindu egin behar digu". Gauzak konpondu ezean hurrengo hitzordua martxoaren 12rako jarri dute.

## 70 herritan euskara eskolak

Nafarroan dauden ikas zentron artean daude AEK Irurtzunen, Etxarri Aranatz eta Altsasun dituen taldeak.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.  
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)  
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

**JUANLUZENA**  
SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera  
tel. 948 604 571  
680 652 183

ODERITZ

## uharte arakilgo udala

**XEHETASUN AZTERLANA.**  
**HASIERAKO ONESPENA**

Alkatetzaren apirilaren 5eko 13/2014 Ebazpenaren bidez, hasiera batean onetsi da Uharte Arakil-go 1. poligonoko 802. ETA 294. lurzatiaren xehetasun azterlana, Uhalrod s.l.k. sustatua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76.a) artikuluaekin bat, espedientea jendaurrean egonen da hogeiegunean, interesdunek eskura izanen dute espedientea udal bulegoetan, azter dezaten eta bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Uharte Arakilen, 2014ko otsailaren 13an.

Alkate udalburua, Javier Rodríguez Astiz



**UHARTE**  
**ARAKILGO**  
**UDALA**

&gt;&gt; Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

# Parte-hartzea ereiten

**Biharko antzerki emanaldiarekin despedituko da parte hartzea sustatzeko astea**

Denbora izan eta zer egin jakin ez. Denbora pasa hala egon. Askotan horrela egoten gara. Hori guztia aldatu nahi duenak Altsasuko Iortia kultur guneko erakusketak gelatik pasatzea du. Han makina bat boluntario talde euren jardunaren berri ematen ari dira eta ziurrenik laguntzeko prest dagoen jendea esku zabalik hartuko dutela.

Boluntariotzari buruzko era-

kusketa Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sustatu du. Herrietako hainbat taldek bezala haiek ere boluntarioak behar dituztelako, jende batzuen beharrikasetzeko, esaterako adinduei konpainia egitea edota adin txikikoei ikasketetan laguntzeko.

Jardunaldiak hitzaldi batekin zabaldu ziren astelehenean. Karmele Erdozainek (CAN fundazio-ko boluntariotzaren sustapenerako programakoa), Patricia Eiroa (adin txikikoei laguntza klaseak

ematen ditu), Eduardo Gonzalok (Uharteko boluntario taldeko koordinatzailea) eta Patxi Goikoetxeak (Josefina Arregi klinikako lagunen elkartekoa) euren esperientzien berri eman zuten 20 bat pertsonen aurrean.

Asteazkenean, bestalde, Nafarroako Jakien Bankua, Sakanako Behar Bereziatiko elkarteak, Ekuadortarren elkarteak, Hitzondo, Josefina Arregi klinikaren elkartearen lagunak, DYA (erakustaldia egin zuten), Olatziko boluntarioak eta Gizarte Zerbitzuak izan dira. Gaur,



Jende asko pasa da erakusketatik.

azkenik, Mintzakide programa eta Bocalan Biak bat fundazioko

kideak izanen dira. Azken horiek erakustaldia egingen dute.

SAKANA

# Goi tentsioko linearen kontrako Lurkideak



Lurkideen aurreneko batzarra. UTZITAKOIA

Larunbatean Artikaneginzen Lurkideen aurreneko batzarra. Bertan Lurkide konpromisoa hartu duten 247 erakundeetako ordezkariak bildu ziren. Deikaztelu-Itsaso argindar linearen proiektuan aurreikusitako 247 dorreak hartuko dituzten eremuak babesteko konpromisoa adierazi zuten guztiek, tartean Sakanako arlo guztietako 71 eragilek. Guztiek ere, “dagoen dorrearen tokian, lurraren defentsan beharrezkoak jotzen diren ekintzak egiteko” konpromi-

soa hartu dute Autopista Elektrikorik Ez! plataformak eskatuta.

Batzarrean aurreneko ekintza martxoaren 30ean, 11:00etan, egitea erabakizuten. Egun eta ordu horretan 247 eragileetako ordezkariak dorreak hartuko lituzketen lurremuetara joanen dira. “Babestu” duten eremu hori goi tentsiorik gabeko eremu librea dela adieraziko dute, 127 km-ko luzera duen proiektu baten 247 puntutan. Ekintza gehiago ere iragarri dituzte etorkizunerako, beti ere, egitasmoa ber-

tan behera uzteko helburuz.

## Aurretik

400 kW-eko argindar linea egitasmoaren kontra 220 udal eta kontzejuk mozioa onartu dute. 173 alkatek proiektuaren tramitazioa geldiaraztea eskatu zuten. 54 herritan herri galdeketa egin zen eta herritarren gehiengo zabala kontrazegoela adierazi zuen. Plataformaren bidez argindar linearen kontrako 14.000 alegazio ere aurkeztu dira.

&gt;&gt;

# Aurrera doa Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren erredakzioa

**Martxoaren 6ra arte, ostegunero, gai bat landuko da.**

Langile-klasearen eta herritar-sektore zabalen (gazte, adineko, emakume, etorkin, maila funtzional ezberdineko pertsonak...) helburu eta aldarrikapen sentituenak jaso nahi dituzte Euskal Herriko eskubide sozialen kartan. Eskualdez eskualde idatzi hori aberasteko ekarpenak egiteko dinamikak aurrera eramaten ari dira. Sakanan Ostegun Sozialak izena hartu dute dinamikak. Hilaren 6tik martxoaren 6ra, bost ostegunetan, beste horrenbeste arlo



Irurtzun, Etxarri eta Olatziren ondoren Altsasuren eta Lakuntzaren txanda da.

## Egitaraua

**Lanari loturiko eskubideak.** Otsailaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Hizkuntza eskubideak, jatorri aniztasuna, eskubide kulturalak, aniztasun sexuala, parte hartzea.** Martxoaren 6an, ostegunean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean.

landuko dituzte. Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen lehen Asanbladak sustatu du Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren erredakzioa.

&gt;&gt; Altsasu



Udalean jarrarazi dituzten banderak.

## Bertako ikurrak jartzera

**Domekan, 12:30ean, Zelai eta San Juan kaleen bidegurutzean**

Ikurren Legeak Espainiako banderara udaletxean jartzea behartu du berriki. Lege berak ikurriña lege jartzeko debekua eman zuen. Hori dela eta, Geure Ikurren Alde ekimena sortu zen Altsasun eta bera da etziko ekitaldia antolatuta duena. Herriko toki nabarmen batean, Zelai eta San Juan kaleen bidegurutzean, ekimeneko kideak hiru masta jartzeko lanean aritu dira aurreko egunetan. Igandean mastak mustu egingen dituzte. Horretarako, Altsasuko eta Nafarroako banderak eta ikurrina jarriko dituzte. Banderak igotzearekin batera, dantzariak eta musikariak ere izanen dira. Ekimeneko kideek aurtengo dituzten asmoen berri emanen dute. Aldi berean, haiek zabaltzeko Nafarroako banderak eta ikurrinak salgai jarriko dituztela iragarri dute.

&gt;&gt;

# Udako brigaden eskaintza egin du Askapenak

Sakanako Askapenatik jakinarazi dutenez, udako brigadetan izena emateko epea martxoaren 30era arte dago zabalik. Aurten “herri boterean oinarritutako Argentina, Uruguay, Venezuela eta Boli-

viako prozesuak edo Palestina eta Saharar lurralde okupatuetako erresistentzia borroka lehen eskutik” ezagutzeko aukera eskainiko du Askapenak. Eta berritasun gisa Herrialde Katalanak,

Aragoi eta Gaztelako “askapen sozial eta nazionalaren alde borrokan ari diren herriak” ezagutzeko brigadak antolatuta dituzten aurretan.

Erakunde internazionalistak brigaden “esperientzia bizitzera gonbidatu” ditu sakandarrak. “Zurekin batera borrokan ari garen herrion arteko harremanak iraunez, mundura zabalduko

## Hitzaldia

**Larunbatean, 19:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean Izquierda Castellana taldeko bi kidek hitzaldia emanen dute.**

den sare internazionalista eraikiko dugulako”. Izena emateko brigadak@askapena.org helbidera jo behar da.



## SAKANA



Embutidos Arbizura bisita. ARTXIBOA.

## Landa-berrikuntza eta elikadura hizpide

Europako eskualde arteko programako kideek gaur Embutidos Arbizu eta Katealde bisitatuko dituzte

Herenegun hasi eta gaur arte Itera-AA proiektuak biltzen dituen Frantzia, Portugal, Espainia eta Euskal Herriko bazkideak Lekunberrin bilduak egon dira. Europako eskualdeen arteko elkarlan programa da, eta bere helburua da nekazaritzako ekoizleen balio erantsia zaintzea eta merkaturatuko diren produktu bereizleak lantzea. Horrekin batera, euren eskualdeetako enpresen premiari abiapuntu hartuta prestakuntza eta laguntza eskaini nahi dute, dituzten premiei erantzun eta horietarako aukera erraztasuna izateko. Horretarako, nekazaritzako ekoizleen artean hainbat arlotan berri-kuntza sustatzen dute. Bilkuran Correzeko Kontseilu Nagusia (Frantzia), Figeaceko Sindikatu mistoa (Frantzia), Adraveko garapen-agentzia (Portugal), Granadako Diputazioa (Espainia), Sergal (Araba) eta Cederna-Garalur (Nafarroako mendialdea) erakundeetako ordezkariak dira. Iterreg IVB Sudoe programaren baitako proiektu horretarako 736.276 euro daude bideratuta.

### JARDUNALDIAK

Herenegun barne lana egin zuten goizean eta arratsaldean lurralde-markari buruzko jardunaldi irekia izan zen Lekunberrin. Labelak eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko ekimenak izan ziren hizpide. Charles Perraud kontsultoreak esan zuen tokiko sor-marka baten sorrera berezko produktuen ekoizpen modu bat babestera bideratu behar dela, haren kalitatea eta sortze prozesua bermatzeko. Horregatik, sor-markaren ezaugarriak ongi azaltzea ezinbesteko jo zuen. 45.000 biztanleko eskualde batean Pascal Germaine elikaduraren bidez lurralde-nortasuna sortzeko garatu duten tokiko-kontsumo esperientziaren berri eman zuen. Eusko Label esperientziaren berri eman zuen, azkenik, Alvaro Montejok.

Atzo hainbat elikagai enpresa bisitatu zituzten, tartean aipatutako Sakanako biak. Gaur, azkenik, teknikariek aurrera begirako barne-lana egiten dute.

## Altsasu

# Bi altsasuar irisgarritasun osoa eskaintzen duen aterpearen proiektuaren kide

Gure Sutraiak aterpe irisgarri eta jasangarria martxan da Ollon. Proiektuaren parte dira Leire Rivas Jorge eta Joseba Bustamante sakandarrak

Herritar guztiek turismoaz eta ingurumenean egin daitezkeen ekintzez gozatzeko aukera eskaintzea da Gure Sutraiak aterpeak eskainiko duena. Irisgarritasun guztia dute aterpeko instalazioek: "Berdin da pertsonen zein behar dituzten, zein urritasun duten, guztiei zabalik baitago eta guztiek erabiltzeko moduan eraikia baitago aterpea", azaldu dute Leire Rivas eta Joseba Bustamante Gure Sutraiak aterpearen proiektuko bultzatzaile eta kideek.

Aterpea 80 pertsonendako dago egina. Horietatik, irisgarritasun unibertsala 24 lagunei eskaintzen ahal zaie. Beste 26 logeak literak dituzte eta bestelako beharrak dituztenentzat erabilgarri daude. "24 ohatze dira irisgarritasun osoa eskaintzen dutenak eta beste 26k zentzumen edo adimen urritasuna dutenentzako, besteak beste, itsu edo gorrentzako bereziki prestatuak".

Egokituak daude logelak eta baita aterpeak dituen beste guneak ere. Zabalera handikoak dira denak. Nahikoa espazioa dute. "Gurpildun aulkiak sartzeko arazorik ez dago, batez ere, komunak oso ongi prestatuak eta egokituak daude", azaldu du Rivasek. Ez dago trabarik, mugarik; duxak eta komunak koskarik gabe diseinatuak daude. Nafarroako Irisgarritasun Unibertsalaren Elkartearekin egin dute proiektua, zehaztu dituzte baldintzak eta betebeharrak.

### Oztoporik gabe

Urritasuna ez dadila muga izan. Horixe izan du Gure Sutraiak aterpearen proiektuak helburu. Eta eskaintza ere halakoa da. Urritasun fisikoa zein sensoriala izan-



Leire Rivas eta Joseba Bustamante aterpean egokitutako geletako batean.

da ere, turismoa egiteko edota bestelako ekintzak gauzatzeko aukera eskaintzen dute.

Aterpera iritsi bezain pronto, itsuek braille hizkuntzaz idatzitako gida dute. Berehala jakinen du edonork zer nolako eskaintza dagoen aterpean. Sartu eta berehala, lurraren bitartez egin dezakete bidea ikusmen arazoak dituztenek, podotaktila baita zorua. Seinale akustikoak ere badituzte eta aterpearen barruan braille hizkuntza seinale guztietan.

Gorrendako, argi bidezko seinaleak dituzte. Kolore ezberdinez baliatuko dira adierazpen bat edo beste egiteko: "Hiru seinale nagusi daude; gorria emergentzietarako, otorduak iragartzeko kolore berdea piztuko da eta ezekin ekintza iragartzeko, kolore zuria piztuko da".

Logeletan eta jantokian dituzte zeinu horiek guztiak. Komunetan, gainera, emergentzia seinaleak daude. Soka luze bat, lurreraino iristen dena, tiratuta, bulegoan eta harrera gunean jasoko dute abisua eta larrialdia

## Baloreak ikasgai gisa

Gure Sutraiak kooperatibaren lanak zer ikusi handi du Gure Sutraiak Baserri eskolak duenarekin. "12 urte daramatzagu ingurumen hezkuntzan, pertsona guztiendako lanean. Behar bereziak dituztenei baloreak eta ingurumenarekiko eta animaliekiko harremana sustatzea da gure eskaintza". Aterpeak ere helburu hori beratu, pentsioa eskaintzearekin batera. Horixe da, hain zuzen, Rivas eta Bustamanteren lana; baloretan hezi eta irisgarritasunaren bitartez ahalik eta herritar gehienei egitea eskaintza hori.

**Aterpea baino gehiago**  
Aterpe turistikoa baino gehiago da Gure Sutraiak, hortaz. Pentsioa eta logelak dituzte aukeran. Baina, ekintzak ere eskaintzen dituzte, baserriko egunerokoarekin lotura dituztenak eta ingurume-

narekin harremana dutenak. Baita kirola ere, egokitua norberak izan dezakeen urritasunera. "Ideia sortu zen, behar bereziekin lanean ari ginelarik, ikusten genuela ko ordura arte genuen aterpea ez zela irisgarria, gure proiektua ez zela pertsona guztiengana iristen. Mugaguen eta aterpe berri sortzeko beharra nabaritu genuen". Aterpean 9 bazkide eta beste hiru langile ari dira lanean. "Beste bost gazte ere ari dira gure proiektuan. Adimen urritasuna duten bost gazte dira, eta gurekin bizi dira. Bizi proiektua da beraiantzat. Eta proiektuaren parte dira".

Gure Sutraiak aterpea zabalik dago jada, martxan dago, baina jendea eta taldeak martxotik aurrera hasiko dira artatzen. "Etxea jantzen ari gara oraindik, azken ukituekin".

sortu den tokira joan dira berehala. Logeletan ere bada bes-

te seinale bat abisua bidali ahal izateko.

**beleixe**

107.3 FM

948 567 074 · Etxarri Aranatz

**maríaeugenia**  
Arrainak

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsaldez zabalik

**Agurainen Arrandegi berria**  
Datorren asteartean, otsailaren 25ean, arrandegi berria irekiko dugu Agurainen

**Asteazken eta ostiraletan deskontuak**  
Datorren asteazkenetik aurrera  
asteazken eta ostiraletan deskontuak hainbat arrain freskoetan

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725



## TXIRRINDULARITZA

**ERBITI ANDALUZIAN:** Asteazkenean hasi zen Andaluziako Itzulia, 7 km-ko erlojupekoarekin. Movistarreko Valverde izan zen

azkarrena eta bere taldekide Imanol Erbiti hiriberriarra 27.a sartu zen, 26 segundora. Rural Kutxa ere Andaluzian lehiatzen ari da.

## kirola &gt;&gt;

## Mendia

## Andoain-Plazaola Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak iganderako, otsailaren 23rako, Andoain-Plazaola mendi ibilbidea antolatuko du. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Olaztiti eta Sakana gutzian barna geldialdiak egiten ditu, mendizaleak jasotzeko. Izena ematea ohiko tokietan egin behar da, herrietako mendi arduradunei esanez edo 639 11 76 31 telefonora hots eginez.

## Atletismoa

## Moreno txapeldun Zumaian

**Zumaiako XXX. Herri lasterketako proba motza irabazi zuen**

Larunbatean Zumaiako XXX. herri lasterketa jokatu zen. Bi aukera zeuden, 5,6 km-ko proba eta 10,2 km-koa. 63 korrikalarik hartu zuten parte proba laburrean eta Javi Moreno altsasuarra gailendu zuen gutzian artean (18:23). Proba luzean, aldiz, El Hassan Oubadi izan zen azkarrena (30:48). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 23.a izan zen (35:07), Felix Benjumea altsasuarra 41.a (36:30) eta Juan Carlos Perez altsasuarra 142.a (41:24).



Javi Moreno helmugan. UTZITAKOIA



## V. Tuterako Maratoi Erdia

Igandean V. Tuterako Maratoi Erdia jokatu zen. Felix Angel Alcalde (1:10:41) eta Amaya Monge (1:23:16) izan ziren garaileak. Probak 21,097 km izan beharrean 20,7 km izan zituen, antolakuntzak ibilbidea neurterakoan izandako akatsarengatik, eta horregatik egindako denborak ez dira baliagarriak izango. Mikel Garcia Berdud altsasuarra 57.a izan zen (1:21:27) eta Carlos Manero altsasuarra 276.a (1:32:06).

## MAIZA 19.A ANTZUOLAN

Igandean II. Antzuolako 8 Miliak proba jokatu zen (13,8 km). Ekaitz Kortazar (1:04:41) eta Leire Fernandez (1:18:29) izan ziren azkarrenak helmugan. Jose Javier Maiza etxarriarra 19.a izan zen (1:14:17) eta Iraitz Senar lakuntzarra 76.a (1:24:23).

## Txirrindularitza

## Pinoroad kulebroia

URTASUNEN TALDEA KOLOKAN DAGO, ETA LAGUNTZA EKONOMIKORIK IZAN EZEAN, DESAGERTUKO DA

Pablo Urtasun txirrindulari urdiaindarraren PinoRoad talde txiletarrak premiazko laguntza ekonomikoa behar du lasterketetan murgildu baino lehen ez desagertzeko. Arrazoa da taldeko manager edo arduradun nagusia, Juan Pablo Pino Zuñiga, desagertuta dagoela, ustezko agirifaltsutzea egiteagatik, balio ez duten kontratu eta notario-zigiluak tarteko.

PinoRoad kategoria kontinentaleko taldea da eta 17 kide osatzen dute, guztiak kontratadunak. Taldea Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunean (UCI) inskribatu zuten otsailaren 5ean, Txileko Txirrindularitza Federazioaren bidez. Atzo PinoRoad taldeak prentsa ohar baten bidez azaldu zuen 2014an ez dela errepideetara aterako "taldeko arduradun nagusi Juan Pablo Pinoren desagertuagatik". Taldeak, halaber, gaineratu zuen "Pinok egindako neurri-gabekeriengatik, beharrezkoak diren neurri legal guztiak hartuko dituztela".

## Gertakariak

Prentsa oharrean jasotzen denez, ilbeltzaren erdialdean sumatu zituzten lehendabiziko seinale txarrak. Txirrindulak eta maillotak ez ziren Txilera iristen Juan Pablo Pinok ez zituelako beharrezko ordainketak egiten. "Bere ardurak ekiditeko maniobra azal ezinak egiten zituen, hornitzaileei gezurra esatera behartuz, lehendabi-

## Bi asteko epea

Bi aste barru jakingo da zer gertatuko den taldearekin. "Pinoren desagertuak egoera oso delikatuaz uztengaitu baina ez dugu etsiko. PinoRoad taldeak aurrera egiten saiatu behar du eta zuten laguntza kontuan izan nahiko genuke babesle posibleetara iristeko" dio PinoRoad taldeak bere facebookean. Ea posiblea den.



## Urtasun: "Taldea salbatzea zaila da baina proiektuak aurrera egiteko dena emango dugu"

Taldean hiru euskaldun daude, Pablo Urtasun urdiaindarra, Juanjo Oroz berribeitiarra eta Mikel Bizkarra. "Gertatutako telenobela baten antzekoa da. Baina penagarria da, urte oso konplikatu batean galtzen den aukera delako. Sekulako makilakada da, baina proiektuak aurrera egin dezan borrokatuko dugu, hona iristea asko kostatu zaigulako. Bukaerara arte eutsiko dugu, ea mirariren bat gertatzen den" adierazi zion Diario de Noticiasi Juanjo Orozek. Pablo Urtasun harrituta dago gertatutakoarekin. "Azkeneko egunetan jakin izan dugu babesletza kontratuak eta notario-zigiluak faltsuak

zirela. Are gehiago, notario hori 2004an jubilatu zen. Pinok guztia faltsutu zuen. Eta ez dago dirurik" gaineratu du. "Nire ustez etxea teilatutik egiten hasi zen, lehendabiziki txirrindulariak fitxatuz, eta bere burua irtenbiderik gabe ikusi duen korrikari ihes egin behar izan du. Dena den, benetan gertatu dena ez dugu sekula jakingo". Kontua da PinoRoad taldea baduela, ongi egituratuta. "Eta ilusioz betetakoa. UCIn onspena dugu hurrengo egunetan egoera konpontzeko. Txilen interesak dituzten Espainiako enpresei eta alderantziz, deialdia egiten diegu proiektu hau aurrera ateratzeko.

Bereziki txiletarrendako proiektu polita da eta ez da horren inbertsio garestia" gaineratu du Urtasunek. Hala ere, urdiaindarrak onartzen du "gauza oso zaila dagoela. Urte oso bat babesleak bilatzen egonda zaila izan zen taldea sortzea eta orain, 10 egunetan bilatzea... zaila da. Litekeena da 10 egun barru taldea desagertzea, baina gure aldetik dena emango dugu hori gerta ez dadin. Penagarria da, oso proiektu ilusionagarria zelako" azpimarratu du Urtasunek. Bitartean, txirrindulariek entrenatzen jarraitzen dute. Urtasunek epaiketatarajotzeaz begionez ikustendu. "Aztertzen gaude baina nire partetik bai".

ziko ordainketak eginak zeudela esan zezaten". Ilbeltzean txirrindularitza taldeak Txilen egin zuten kontzentrazioa eta egonaldia "danteskoa eta frustragarria" izan zela gaineratu du PinoRoad taldeak. "Pinok taldearen kontrola uzteko konpromisoa hartu zuen, gestioa espainiarren eskuetan uzteko, baina ez

zuen bere hitza bete eta azkeneko sainete bat orkestratu zuen, taldeko kide, bazkide eta babesleen pazientzia agortu duena" azpimarratu du taldeak.

Ordutik ez dute Juan Pablo Pinoren berririk. Txiletarra desagertuta dago. PinoRoad taldeko txirrindulariak egoeraren aurrean

"atsekabetuta" daude. Babesleei barkamena eskatu nahi diete "Pinoren jokaerak sortutako kalteengatik". Proiektuak bide onean bukatzeko alternatiba bat sortu dadin lan egingo dutela adierazi dute, eta auzitegietara joatea aztertuko dute, Pinoren ustezko agirifaltsutzeak direla medio.

## Irristaketa

## Sakana Irristaketa Kluba lanean

Hasi da abiadurako irristaketa txapelketen denboraldia. Aurreko asteburuan Zangozak jardunaldia hartu zuen. Sakana Irristaketa Klubeko entrenatzaile Juli Acebesek adierazi digunez, irristalari sakanadarrak lan ederra egiten ari dira

kategoria guztietan, txikienetatik hasita helduenetara. "Oso ongi hasi dira. Lehen postuetan sailkatu dira banakako lasterketetan eta baita taldekakoetan ere. Oso lan ona egiten ari dira eta ea horrela jarraitzen duten" aipatu du Acebesek.



Aurreko asteko txapelketetan lehiatu ziren irristalari sakanadarrak. UTZITAKOIA

Motoziklismoa



Alex Mariñelarena, asteartean Jerezen hartutako irudian. MOTOGP

Alex Mariñelarenak Mundialerako entrenamendu ofizialak egin ditu Jerezen

Asteartetik ostegunera Motoziklismo Mundialeko Moto2 eta Moto3 kategorietako entrenamendu ofizialak burutu dira Jerezen. Moto2an Alex Mariñelarenak (Tech3) bere Mistral 610 motor berriari egokitzeko beste aurrerapausu bat eman du. Atzoko azken entrenamenduko emaitzen faltan, asteazkenean Thomas Luthi suitzarrak egin zuen denborarik onena (1:42.515), entrenamenduen lehen saioan, Tito Rabetekin lehia estua izan eta gero. Lehen saio horretan eguneko denborarik onena egin zuen Mariñelarenak. Irurtzundarra 16.a izan zen (1:43.834), pilotu azkarrenekin orain arte zuen aldea txikituz.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

25. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 1 - OBERENA 0**  
Partida oso lehiatua, bi taldeak parez-pare aritu ziren baina, zorionez, 3 puntuak Lakuntzan gelditu ziren. Bigarren zatian Unai Bakaikoa mugitu zuen Lagun. Gol aukera politik sortu zituen, eta, azkenean, 74. minutuan gol ederra sartzea lortu zuen. Sufrituta, 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren.

Sailkapena >>

- 1. San Juan ..... 59 p
- 16. Lagun Artea ..... 26 p

Asteburuko jardunaldia

**IZARRA - LAGUN ARTEA**  
(Ilgandean, 16:30ean, Lizarran)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

20. JARDUNALDIA

**BETI KOZKOR 0 - LAGUN ARTEA B 0**  
**ALTSASU 4 - BAZTAN B 1**  
**ETXARRI ARANATZ 2 - KIROL SPORT 3**  
Beti Kozkor liderraren kontra husna berdindu zuen Lagun Artea B-k. Lagunek liderraren asmoak ongi zapuztu zituen. Altsasuk garaipen polita lortu zuen Baztanen kontra. Nahiz eta altsasuarrek 2 penalty huts egin eta Baztanek golez penaltya sartu, Altsasuk irabaztea lortu zuen Dario (2 gol), Jon eta Davidi esker. Bukatzeko, Etxarri 2-3 irabazi zion Kirol Sportek San Donato futbol zelaietan. Etxarri lehen zatian dominatu zuen, baina ez zituen aukera guztiak baliatu eta Pablok sartutako gol baten abantailarekin joan zen atsedenaldira. 2. zatian Kirol Sportek ongi arobetxatu zituen aukerak eta 1-3 aurreratu zen. Etxarri 2-3 gerturatu zen baina ezin izan zuen ezer gehiago egin.

Sailkapena >>

- 1. Lekunberriko Beti Kozkor ..... 43 p
- 5. Lagun Artea B ..... 32 p
- 7. Altsasu ..... 29 p
- 15. Etxarri Aranatz ..... 16 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA B - ETXARRI ARANATZ**  
(Ilgandean, 12:15ean, Berriozarren)  
**ARROTXAPEA - ALTSASU**  
(Ilgandean, 16:00etan, Iruñean)



Altsasu-Baztan partida.

Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK  
12. jardunaldiaren txanda

Ilgandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 12. jardunaldia jokatuko da Altsasuko Dantzalekun.

12. jardunaldia

**Ilgandean, Altsasuko Dantzalekun**  
**11:30ean:** Urdiain - Kaixo  
**11:30ean:** Txartel - Dantzaleku  
**12:30ean:** Etxarri Aranatz - Arbizu K.T.  
**12:30ean:** Lagun Artea - Sayas  
**Atsedena:** Tipi Tapa

Areto futbola

Magnaren garaipen potoloa

IRURTZUNGO TALDEAK 9-5 IRABAZI ZION AZKAR LUGORI

Eurokopagatik ia hilabeteko geldialdia egin eta gero, Magna Nafarroa Xota ohorezko mailako ligara ate handitik itzuli da, larunbatean Azkar Lugori 9-5 irabazi baitzion, Anaitasuna pabilioian eta 2.000 zaleren aurrean.

Hala ere, lehen zatian Imanol Arregiren mutilek asko sufritu zuten. Azkar Lugo izan zen aurreratu zena, eta Magnari atzetik erremontatzea tokatuzitzaion. Atsedendira hirunako berdinketarekin joan ziren, Carlitos, Eseverri eta Cucori esker. Bigarren zatian iritsizen berdeen erantzuna. Irurtzun-

goak hobeto kokatu ziren kantxan eta Marc Tolrákek laugarren gola sartu zuen. Gainera, hurrengo jokaldian, Eseverri bosgarren gola sartu zuen. Lugokoek euren laugarren gola sartu zuten, baina hortik aurrera ez zuten Magna harrapatzea lortu. Bestelagolsartuzituen Magnak, Carlitos, Rafa Usin, Eseverri eta Jesulitori esker. Javi Eseverri kapitain beteranoak hat tricka lortu zuen: 3 gol.

Partida bukaeran Imanol Arregi pozik zegoen. "Nahiz eta ia hilabete bat geldirik egon 3 puntu oso garrantzitsu lortu ditugu, ligan bi

Eseverri bikaina



Magnako Javi Eseverrirendako badirudi ez direla urteak pasatzen. Kapitain irurtzundarrak hiru hat trick sartu ditu jokatu dituen azken hiru partidatan. Partida bakoitzeko hat trick bat, azken hiru partidatan. Errekor bikaina 36 urte beteak dituen kapitainarendako. 19. jardunaldian, El Pozo Muriaren kontra, Eseverri 3 gol sartu zituen; 20. jardunaldian, Colegios Arenaas Galdar Gran Canariaren kontra, beste 3 gol, eta 21. jardunaldian, Azkar Lugoren kontra, beste 3 gol. Otsagikoa sasoi bete dago eta badirudi betirako gaztetasunaren edabea topatu duela. Urte askotarako izan dadila.

partida galtzetik etortzen ginelako. Irabaztea behar genuen eta lortu dugu" aipatu zuen entrenatzaile irurtzundarrak. Inter Movistar da liderra (52

puntu). Magna Nafarroa Xota 5.a da (31 puntu). Bihar, larunbatean Andaluzian jokatuko du Magnak, 19 punturekin 10.a den Jaen Paraiso Interior taldearen kontra.

FUTSAL SAKANAKO TXAPELKETA

Racing San Migelek lidergoa sendotu du

ASTEBURU HONETAN TXAPELKETAKO AZKEN JARDUNALDIA JOKATUKO DA ETA ONDOREN, TITULUA ERABAKITZEKO PLAY OFFAK JOKATUKO DIRA.

13. jardunaldiko emaitzak

Biltoki 3 - Racing San Migel 6  
Etxarriko Gaztetxie 2 - Iturmendi 3  
Auzomotojorik 5 - Arbizu K.T. 5  
Atsedena: Racing San Migel

Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketako 13. jardunaldia jokatuzen ostiralean, ligako azken aurreko jarduna. Racing San Migel talde uharteak lidergoa sendotuzuen, Biltokiri 3-6 irabazi eta gero.

Etxarriko Gaztetxie eta Iturmendiren arteko partida lehiatua, iturmendiarrak nagusitu ziren, 2-3. Eta Auzomotojorik eta Arbizuk bosna berdindu zuten. Sailkapenean Racing San Migel da liderra (28 puntu), Auzomotojorik 6 puntura duela (21 puntu). Arbizu da hirugarrena (19 puntu). Atzetik daude Etxarriko Gaztetxie (10 puntu), Iturmendi (9 puntu), Biltoki (9 puntu) eta Bunker (6 pun-

Hurrengo jardunaldia, azkena

**Otsailaren 22an, larunbatean, Uharte Arakilen**  
**16:00etan:** Iturmendi - Bunker  
**17:00etan:** Arbizu K.T. - Etxarriko Gaztetxie  
**18:00etan:** Racing San Migel - Auzomotojorik  
**Atsedena:** Biltoki

tu). Golegile edo pitxitxi sailkapenari dagokionez, Racingeko Asier Turunbai da pitxitxia (22 gol), Etxarriko Gaztetxeko Jurgi Kintana (20 gol) eta Racingeko Jose Maria Gorriti (16 gol) eta Jesus Angel Alvarez (16 gol) gertu dituela. Bestalde, Arbizu Kirol Taldeko Iñaki Galarza eta Xabi Meuzak dira gol gutxienez jaso dituzten atezainak.



Asteburuko partidetak batean hartutako irudia. FUTSAL SAKANAKO

Azkena

Larunbatean Futsal txapelketako azkeneko jardunaldia dago jokoan. Racing San Migelek ez du lidergoa jokoan, 6 puntu ateratzen dizkiolako Auzomotojorik taldeari, baina hala ere aipatu bi taldeen arteko lehiak zeresana emango du, Auzomotojorik eta Arbizuk biga-

[www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es)

Txapelketako informazio guztia, kronikak barne. Facebook eta twitter sare sozialetan ere.

rren postua jokoan dutelako. Arbizuk Etxarriko Gaztetxie izanen du arerio eta Iturmendik Bunker. Txapelketa bukatuta, titulua erabakitzeko play offak jokatuko dira.

Aizkora

# Ni, aizkolari

SAKANAKO AIZKORA ESKOLAN IZENA EMATEA ZABALIK DAGO

Martxoan hasiko da 2014ko Sakanako Aizkora Eskola. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Eskolaren bitartez bi helburu nagusi bete nahi dira; batetik, aizkora bera bultzatzea eta, bestetik, Sakanako aizkolari harrobi on bat osatzea. Urteak dira Sakanako aizkora eskola antolatzen dela eta asko dira bertatik atera eta egun txapelketetan aritzen diren sakandarrak.

Aizkora eskola martxoan hasiko da eta astero bi egunetan gauzatuko da, asteazkenetan (19:30-20:30) eta larunbatetan (12:00-13:00), Floren Nazabal aizkolariak Etxarri Aranatz duen bordan.

**Izena emateko**

Izena ematea zabalik dago, otsailaren 28a baino lehen, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakanamank.com posta elektronikoa). Aizkora eskola 10 eta 35 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendua dago eta prezioa 55 eurokoa da.

Sakanako Aizkora Eskolak aukera polita ematen die aizkora gustuko dutenei eta aizkoran hasiteko beharrezkoak diren baliabideak –aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste– ez dituztenei. Izan ere, aizkoran hasitea zaila suertatzen zaie familian edo lagunartean aizkolariak ez dituztenei.



Aizkora eskolako ikasle bat, Juan Mari Nazabalekin eta Juanito Erdoziarekin.

**Irakasleak, puntakoak**

Monitoreak aizkorari lotutako sakandarrak izango dira: Floren Nazabal aizkolari txapeldun handia, bere aita Juan Mari Nazabal, aizkolari izandakoa, eta Juanito Erdozia, aizkolari izandakoa eta

oraindik tarteka enborrera igotzen dena. Aurreko urtean bete egin zen aizkora eskolarako zegoen tokia –15 ikasle– eta aurten ere erantzun bikaina espero da, aizkoran murgiltzeaz gain sortzen den giroa oso polita delako.

Pilota

## Irurtzunek eta Altsasuk berdindu

Espainiako Kluben Arteko txapelketako 7. jardunaldian, eskuzko modalitatean, Irurtzun eta Altsasu taldeen arteko derbya jokatu zen. Banakakoan Irurtzunge Armendariz nagusitu zitzaion altsasuarriari (8-10 eta 10-4 eta 5-2), eta binakakoan Altsasuko Arrietak eta Peña-sek Ongay eta Mitxelena menpean hartu zituzten (10-8 eta 10-2).

Pala

## Munduko txapeldunarekin

Larunbatean Pala Munduko Txapelketako finala jokatu zen Bilboko Bizkaia frontoian. Etxarriko Nesken Pala Eskolak autobusa antolatu zuen finalera joateko. Finalean Pablo Fusto argentinarra izan zen txapelduna, bere laguarren txapela jantziz. Xabier Ibargarai nafarrrari 10-5, 10-3 eta 10-4 irabazi zion.



Etxarriko Nesken Pala Eskolakoak argazkia atera zuten Fusto txapeldunarekin.

Pilota

# Segi horrela!

EZKURDIA-ZABALETAK ETA XALA-ZUBIETAK GARAIPEN GARRANTZITSUA LORTU DUTE ETA BINAKAKO FINAL LAURDENETARAKO SAILKATZEKO BORROKAN SEGITZEN DUTE

Saillkapena	
Olaizola II.a-Aretxabaleta	7 puntu
Irujo-Barriola	7 puntu
Xala-Zubieta	5 puntu
Titin III.a-Merino II.a	4 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	4 puntu
Berasaluze-Albisu	3 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	3 puntu
Bengoetxea-Zabala	3 puntu

Azken jardunaldiak kontentzu utzi ditu Sakanako pilotazaleak. Binakakoan dabiltzan pilotari sakandarrak garaipena lortu zuten, eta Binakakoan aurrera egiteko aukerakin segitzen dute. Xalak eta Aitor Zubietak 5 puntu dituzte eta finalerdietara sartzeko lehian sartuta daude, bete betean. Jokoa berreskuratu dute, sasoi ongi daude eta garaipenek eurekin dakartzaten morala, goian. Ezkurdiak eta Zabaletak, aldiz, 3 puntu dituzte, baina saillkapena oso estu dagoenez, garaipenen bidean jarraitzen badute finalerdietan sartzeko aukerak izan, badituzte. Ostiralean jokatu zuten bezala jokatzeko jarraitzea da gakoa.

**Zabaleta, berriro jaun**

Ostiralean, Bastidan, Ezkurdiak eta Zabaletak 17-22 irabazi zieten

**10. jardunaldia**

**Olaizola II.a -Aretxabaleta / Ezkurdia-Zabaleta** (ostiralean, Urdulizen. ETB1)  
**Titin III.a-Merino II.a / Xala-Zubieta** (larunbatean, Iruñean)  
**Berasaluze-Albisu / Bengoetxea-Zabala** (larunbatean, Amorebietan. NITRO)  
**Irujo-Barriola / Urrutikoetxea-Beroiz** (igandean, Eibarren. ETB1)

Titini eta Merinori. Sakandarrak irabazi beharrean zeuden txapelketan aukerakin jarraitzeko eta badirudi presio horrek on egin zela, partida gogorrean errioxarrak irabazteko gai izan zirelako. Zabaletak gripearri buelta eman dio eta sekulako pilotakadak jo zituen, tarte batzutan Merino jokoz kanpo utziz. Zabaleta atzean sendo, eta Ezkurdia sentsazio onekin aritu zen. Hasieratik aurreratu ziren sakandarrak, eta nahiz eta errioxarrak estutzen saiatu, sakandarrak ez ziren urduritu eta salbazioaren garaipena lortu zuten.

**Puntu bat baino gehiago jokoan**



Xalak eta Zubietak 104,3, 104,8 eta 105,3 gramoko pilotak aukeratu zituzten larunbatean, Labriten, Titin eta Merinoren kontra aritzeko. 5 puntu dituzte lapurtarrak eta etxarriarrak eta 4 puntu errioxarrak. "Partida klabea da, final bat bezalakoa. 5. puntua lortuko bagenu eurekin berdinduko genuke, eta eurak irabaziz gero alde polita aterako lukete" azaldu zuen Merinok. Iritzi berekoa zen Aitor Zubietak, izan ere, puntu bat baino gehiago dago jokoan. "Irabaziz gero gauzak oso ongi jarriko lirake gureta, klabea den abantaila lortuko genuke. Aste hau puntu eta erdikoa da gureta" adierazi zuen etxarriarrak. Bi atzelarien arteko lehia ikusgarria espero da. "Zubietarekin agoantzea tokatuko zait. Pilotakada luzeak jo beharko ditut eta Titinek aukera duenean, sartu" gaineratu zuen Merinok.  
**Ezkurdia-Zabaleta, irabaztera behartuta**  
 Sakandarrak 3 puntu dituzte, eta finalerdietara pasatzeko aukerak izateko, gaur, Urdulizen, Aimar Olaizola eta Aretxabaleta irabazi beharrean daude. Lehen itzulian hala egin zuten, eta, ea bigarrean, garaipena errepikatzen dute. Sakandarrak 104,2, 104,3 eta 105,8 gramoko pilotak aukeratu zituzten. Gure pilotarien dena dute jokoan, finalerdietako ligaxkan sartu ahal izateko irabazi beharrean baitaude. Aimarrek eta Aretxabaletak ez dute horrenbeste jokoan, saillkapenean goian daudelako, baina joanekoan galdu zuten, gustura hartuko lukete errebantxa Ezkurdia eta Zabaletaren kontra. Ea zer gertatzen den.

**Zubieta onena**

Xalak eta Zubietak 22-16 irabazi zieten Urrutikoetxea ordezkatu zuen Saralegiri eta Beroizi Maulen. Serio jokatu zuten Xalak eta Zubietak, eta nahiz eta hasieran arerioak aurreratu, egoerari buelta eman eta 7-11 aurreratu ziren lapurtarra eta

etxarriarra. Zubietak atzeko koa droetan agindu egin zuen eta hori izan zen partidako gakoetako bat. Gainera, Xala dirdiratsu aritu zen, tanto politik eginez eta Saralegi jokoz kanpo utziz. Horrela, garaipen polita lortu zuten eta finalerdietarako urrats handia egin zuten.

**Non erabili**

**ARGIRO OPTIKA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
 2X1 progresiboetan.

**ZELANDI KIROLDEGIA**  
**ALTSASU**  
 Lehenengo matrikula doan.

**GOROSTI**  
**ALTSASU**  
 30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

**LA CIGÜEÑA**  
**ALTSASU**  
 60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

**IZARA**  
**ALTSASU**  
 %10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta % 5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

**ARKUPE**  
**ALTSASU**  
 Erakuslehioen aldaketagatik % 50eko deskontuetatik gora.

**TXIKITXO**  
**ALTSASU**  
 60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilteko.

**NAMASTE YOGA**  
**ALTSASU**  
 www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

**TIPI TAPA OINETAKOAK**  
**ALTSASU**  
 60€ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

**VIZU ILEAPAINDEGIA**  
**ITURMENDI**  
 30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

**ALDASORO HARATEGIA**  
**ALTSASU**  
 30€ko erosketeta betengatik etxeko produktua opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

# Bardo sakandarrak gaur eta etzi kantuan

**Gaur, ostirala, 22:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean. Talde irabazleak lehiaketan aurrera egingen du. Etzi, 19:00etan, Barañaingo Haizea elkartean**

**B**ardoak, Nafarroako Taldeko Bertso ekimenaren hirugarren asteburuan parte hartzen ari diren bi talde sakandarrak lehiatuko dira. Haietako bat, B multzoan dagoen Bilixkorriko, etxean ariko da. Etxarriko gaztetxeke eszenatoki gainean Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Alain Iriarte

eta Unai Artieda bertsolariak kantuan ariko dira. Maider Ansak aurkeztuko du saioa eta taldearen ordezkari lanean Artzai Iraurgi izanen da. Lehiaketako bigarren puntua eskuratu nahiko du Bilixkorriko.

Sakandarrekin neurtuko den taldea Etxeko Kontuk da. Iker Gorosterrazu, Egoitz Gorosterrazu eta Amaia Elizagoien bertsolariak osatzen dute. Malerreka-Baztango taldeak ere puntu bat du. Saioa irabazten duenak egingen du lehiaketan aurrera.

Aurreko ostiralean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean, 30 bertsozaleren aurrean, Iruñeko Mirristi Drimtim taldeko Xabier Terros, Mikel Juaniz eta Asier Saragueta bertsolariekin neurtu ziren Bilixkorrikoak. Saio bizia izan zen eta sakandarrek puntua eskuratzea lortu zuten.

## Barañainera

D multzoan, duela bi aste Arbuzoko saioa galdu ondoren, Bizkorra txiko talde sakandarreko bertsolariak Barañainera joanen dira



igandean Miluzeko Barañetak taldearekin neurtzeko. Bertso merendua dago iragarria 19:00etatik aurrera Haizea elkartean.

Saioaz gozatzea eta ahal bada puntua ekartzeko asmoz joanen dira Barañainera etzi Joxema Leizta, Joseba Beltza, Saats Karasatorre eta Aitor Zubiria. Aurrean

Ander Baiano, Ander Perez, Mintxo Astiz, Pablo Perez, Edurne Errea eta Iker Mundiñano bertsolariak osatutako taldea izanen dute. Bi taldeek ere ez dute punturik eta ohorezko puntua eskuratzea izanen dute helburu, lehiaketan aurrera egiteko txartela Leiztako Harrapazank taldeak baitu.



# Sormena tortura salatzen tresna

**S**akanako makina bat sortzaileen torturaren salaketa artistikoa hartu zuen Etxarri Aranazko kultur etxeak igande arratsaldean. Pasa den ostegunean Euskal Herriko torturaren kontrako eguna zela eta antolatutako ekitaldirako propio sortutako lanak izan ziren igandean eman zirenak: musika, bertsolariak, dantzariak, zirkoa, antzerkia, erakusketa, eskalatzailak, umorea, txalapartariak...

Antolakuntzan aritu ziren Alaznek, Olatzek eta Sagrak **Beleixe Irratian (FM 107,3)** azaldu zuten, bi hilabete eman dituzte ikuskarria prestatzen. Astero dozena erdi bat sortzaile bildu izan dira eta 30 egile koordinatu dituzte. Guztiek euren diziplina erabiliz torturari



buruzko ikuspuntua eman zuten. Alaznek, azaldu zuenez, hasiera batean arte erakusketa bat sortzeko asmoa zuten. Baina elkarrizketek diziplina arteko ikuskari bat sortzera eraman zituzten.

Sortzaile talde berak Etxarri Aranazten Artie Kalia antolatu zuen, estalopea sortzaile mordo baten lanen erakustoki bihurtu zuena. Olatzek esan zuenez, sortzaileek euren deiei erantzuten dietenez, biltzen jarraituko dute eta ekitaldi berriak etorriko dira.



## Santano, Santano azaltzen

Igandean despeditu zen Iortia kultur gunean Helena Santano Ciden obraren atzera begirako erakusketa ikusteko aukera. Horren aurretik hainbat izan dira erakusketa gelatik pasa diren bisitariak. Egilea han egon denez, ikusleekin iritzia trukatzeko aukera izan du eta oso esperientzia aberasgarria izan dela adierazi digu. Gainera, ostegunean bisita gidatua antolatu zuen. 20 bat sakandarrek Santanoren serie ezberdinen nondik norakoak interesez segitu zituzten.

## bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

### Faxistak eta antzekoak, sarean

Ez dut lotura bakar bat ere jarriko. Ez diet publizitatekerik egingo. Baina esan behar dut azken aldian kezkatu nagoela faxismoak duen gorakada ikaragarriarekin eta, oro har, ez diogulako arreta gehiegirik jartzen. Bizi dugun krisi ideologikoan, non geroz eta gehiago diren "ez ezker ez eskuina" direla adierazten dutenak, erraz dute guztien artean integratu eta euren mezua zabaltzea.

Egun hauetan Ukrainan eskuin muturreko taldeen estatu-kolpe bat ari da garatzen. 15M edo Arabiar Udaberriekin gertatu bezala "ideologiarik gabeko protestak" direla saldu digute, baina argi dago ideologia finkorik ez duen masa horren atzean eta, batez ere, abangoardian, talde zehatzak daudela. Ukrainan talde naziek hartu dute aurre eta komunikabideetan (publikoetan zein ezkerreko hainbat komunikabideetan) ez da "detalle txiki" hori aipatzen. Protesta "demokrazia" edo "Europagehiago" eska-

tzeko omen da, eta asko sakondu behar dugu errealitatean gertatzen ari dena ikusteko. Lerro hauek idazten ari naizela Venezuelan ere milaka dira kalera aterako faxistak. Gainera Twitterra erabiltzen ari dira bertan gertatzen dena baino, gertatzea nahi luketena adierazteko. Unai Romano Venezuelan torturatua, Siriako gazte batzuk Venezuelan hil dira edo Kataluniako giza-katea Venezuelan gertatu e da, Twitterreko iturri eskuindarren arabera. Hemen ideologiak nabarmenago badira ere, komuni-

kabide sozialdemokrata batzuek ondo ezkututzen dute Maduroren aurkako estatu-kolpe faxista dela. Eta azkenik etxeakoak. "Euskararen normalkuntza" aitzaki edo, euskarazko komunikabideetan iritzi xenofoboak irakurtzen ari naiz azken aldi honetan. Baita "abertzaletasunaren izenean" immigrazioaren aurka, langileriaaren aurka edo ildo politikoa ezkertiarren aurka egiten dutenena ere. Honek askoz gehiago kezkatzen nau, noski. Etxe barruan ditugun xenofobo eta faxista horiek gutxi edo asko diren ez

dakit; zarata sartzen dutela baizik. Baina krisi egoera honetan antolatu "ez ezker ez eskuin" eremu bat eraman dezaketela uste dut. Hau da, finean, eskuin muturraren estrategia. Tamalez gurean ditugun hauek bozgorailua izan ohi dute, azken aldi honetan, euskarazko komunikabide batzuetan. Badakizue, "iritzi guztiak dira errespetagarri, euskaraz baldin badira." Egunen batean eskuak burura eramango ditugu eta nahiago izango genuke horiek guztiek espainolez idazten jarraituko balute.

# Antzerki tailerra eskaini du Urdiaingo Udalak

Herriaren etxean eman daiteke izena otsailaren 25era arte

Urdiaingo haur eta gazteei zuzendutako antzerki tailerra antolatu du Urdiaingo Udalak. Eskaintza horren bidez nor bere burua adierazten ikas dezake. Baina antzerkigintzaren

bidez ongi pasatzeko aukera ere eskaini da. Antzerkiko hainbat teknika eta kontzeptu landuko dira ikastaro horretan. Hala, Zola Berastegi irakasle arbizuarrak inprobisazioa, gorputz eta ahozko adierazpena, erritmoa, talde lana eta beste erakutsiko dizkie izena ematen dutenei.

Adinari erreparatuta udalak bi ordutegieskaini ditu. Alde bate-

tik, 6 eta 12 urte bitartekoendako tailerlarunbat eguerdian izanen da, 12:00etatik 14:00etara. Gazteen-dako tailerlarunbat arratsaldean litzateke, 16:00etatik 18:00etara. Ikastaroa martxoan hasi eta garagarrilera arte luzatuko da. Herriaren etxean izena ematen duenak 25 euro ordaindu behar dituzte. Informazio gehiagorako 948 562 993 telefonora hots egin.



## Arretxeren azkena 111 Akademiaren sarien bigarren txandara

Pasa den urteko liburu gogokoenak aukeratuak dute Euskal Herri osoko irakurleek osatzen dute 111 Akademiak. Saria banatzeko bozketan liburu bat bera ere ez da botoen %30era iritsi. Bost izan dira aurrera egin dutenak eta haien artean dago Jon Arretxeren 612 euro nobela beltza da. Akademiako kideek martxoaren 10era arte dute haien botoa emateko.



## Umorea boluntarioritza sustatzeko astea ixteko

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia Kultur Gunean Pantxika Lamur izanen da

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak herritarrek boluntario izatera animatzeko asteko egitaraua antolatu du. Horren barruan, bihar, sorpresa ugari izanen dituen saioa iragarri dute, Pantxika Lamur izanen baita bisitan. Berak esana dakigu neskazaharren erregina dela.

### Sorpresak

Lo tendré que hacer yo & cia umorezko emanaldiarekin batera, antolatzaileek jakinarazi digute bi erakustaldi egonen direla: Bocalan Biak bat fundazioarena eta Sakanako Behar Berezien elkarteko psikoballetarena.

Bada, oporretatik bueltan Altsasun geldialdia egingen du, ikuskitzuzun bat ikusteko asmoz. Sarrera

### Jakiak

Biharko ikuskizuna ikusi nahi duenak sarreragatik ez du dirurik ordaindu behar. Jatekoa eraman behar da. Biltzen dena Nafarroako Elikagai Bankuari emanen zaio.

bai, tokia ere, baina denbora pasa ahala artistariek ez. Zein ote da konponbidea? Umorea, akrobaziak, bakarrizketa...

## Ederra eta Piztiaren musika egokitzapena

Igandean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean

ruñeko sailestarren antzerki taldea etzi Irurtzunen izanen da. Ipuin klasiko batean oinarritu dira musikal bat egiteko: *Ederra eta Piztia*. Ikastetxeko adin guztietako ikasle eta irakasleek parte hartzen dute ikuskizunean eta modaz pasa ez den kontakizun baten moldaketa berria eskainiko dute.

## Munduko musikek euskal jatorria omen

Gaur, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean hori erakusten saiatuko da Demode Quartet taldeak

Umorez betetako ikuskizun musikarekin etorriko da gaur gauean Demode Quartet taldea Irurtzuna: *Epa!* Euskal kantuen a capellako bertsoak, koreografia atseginak eta elkarrizketa bitxiak osatzen dute ikuskizuna. Taldean sinesten dute euskal "esentziak" eragina

izan duela munduko gainontzeko kulturetan. Hala, erabat seguru daude countryaren, jazzaren, sanbaren, bollywoodaren edo pop modernoaren jatorria Euskal Herrian dagoela. Horixe erakusten saiatuko dira gaur Irurtzunen, erantzunak baino galdera gehiago sorrarazten dituen ikuskizunean.

Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta David Rosco dira Demode Quartet. 2010ean hasi

zuten euren ibilbide arrakastatsua. Bere aurreneko ikuskizunean Aretha Franklin, Queen edo Madonnaren bertsoak kantatzen zituzten a capella. Antzerki ikuskizun hartan piano, biola, gitarra eta kajoi falmenkoa zituzten lagun. Oraingoan biola esku-soinuarekin ordezkatu dute Itoiz, Lertxundi edota Leteren kantuen bertsoak eskaintzeko. Joatekoa bazara, ongi pasatzeko txartela eskuan izanen duzu.



# Bardoak 2014

nafarroako taldekako bertso ekimena



OTSAILAK 21, OSTIRALA  
Etxarri Aranazko gaztetxean  
22:00etan, bertso-saioa

**BILIXKORRIKO**  
(Sakana)  
Eneko Lazkoz  
Oier Lakuntza  
Alain Iriarte  
Unai Artieda

**ETXEKO KONTUK**  
(Malerreka/Baztan)  
Iker Gorosterrazu  
Egoitz Gorosterrazu  
Amaia Elizagaien

antolatzailea



haurrentzako

beleixe

GUAIXE.NET

babeslea



Informazio osoa eta sarrerak

WWW.BERTSOZALE.COM

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 63%	euria: 13%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 60%	euria: 93%	euria: 63%
Min: 4 Max: 9	Min: 1 Max: 10	Min: 2 Max: 12	Min: 5 Max: 10	Min: 4 Max: 10	Min: 3 Max: 7	Min: 3 Max: 10

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	19	-2.4	6.5
Altsasu	21	-1.5	9.2
Aralar	10.6	-1.7	7.8
Urbasa	11	-4	4.4

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
22	1	8	16

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com  
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

**Otsaileko bazkide zozketa**

**OTSAILEKO SARIAK:**  
1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA  
2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA  
3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA  
4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

# >> 11 galdera

**Maribel Aldasoro Cobo**  
Olaztiko boluntario taldea  
Testua: Alfredo Alvaro eta Mainer Betelu



**1. Zergatik zara boluntario?**  
Ez dakit. Gustatzen zaidalako. Oso zoriontsuegiten nau. Aberasgarria da, ez soilik laguntzen duzulako, baizik eta jendearekin harreman berezia duzulako. Jendea boluntario egitera animatzen dut. Jende asko boluntario sartuko balitz lo egiteko pilula gutxia go hartuko litzuzke.

**2. Zer egiten duzue zuen taldean?**  
Garrantzitsuena norberak nahi duena egiten duela da. Batek galtzerdiak egin ditzake, besteak soinekoak, prakak, jertseak, txanoak ... norberak nahi duena. Gurean arropak egiten dira gehienbat. Gehiena norberak bere etxean egiten du, baina aste-ero bitan biltzen gara, Olaztiko jubilatuen klubeko gela batean, asteartean eta ostegunetan, 16:30etik 18:00etara. Oso gustura egoten gara bertan.

**3. Guztiak emakumeak zarete?**  
Joste lanetan emakumeak gara guztiak, baina gizonezko boluntario pare bat badaude, kaxekin, bidalketarekin eta beste laguntzen digutenak. Boluntarioen senitartekoe ere laguntzen digute. Gainera, jendeak asko laguntzen digu, bestela ezingo genituzke guk egindako gauzak eta guk bildutakoak bidali.

**4. Zuek egindakoa nora bidaltzen duzue?**  
Une honetan Perura. Bertan Olaztiko eta Ziordiko moja batzuk daude eta beraiek kudeatzen dute guk bidalitako guztia. Normalean urtean bi bidalketa egiten ditugu. Guk egindakoa Madrilera bidaltzen dugu, eta elizbarrutiko Hego Amerikako Idazkaritzaren bitartez, guk bidalitakoari eurek bildutakoa gehituta, edukiontzi

bat betetzen dute eta Bilboko portutik bidaltzen da Perura.

Azken bidalketa maiatza inguruan jaso zuten. Jantziekin batera botika asko bidali zen. Ez soilik botikari olaztiarrek jasotakoak, baizik eta hirugarren mundura bidaltzeko denez, prezio sinbolikoan jartzen dizkiguten botikak ere. Honek lan asko ematen die botikariei, datu asko eskatzen dizkigutelako. Eta bidaltzearen porte edo gastuak garestiak dira. Asko kostatzen zaigu baina satisfazio handia ematen dizu bertara botikak bidaltzea, gaixo haiek ez baitute ezer.

**5. Boluntario izateak zer ematen dizu?**  
Ez dakit azaltzen. Sentitzen den gauza bat da. Munduan horrenbeste desgrazia dagoela ikusita, horrenbeste behar duen jendea ikusita, zuk egiten duzuna gutxi da, oso gutxi, baina pentsatzen duzu: zerbait egiten ari naiz!

**6. Eta zerbait kentzen dizu?**  
Ez, guk soberan duguna ematen dugulako. Denbora soberan dugu. Boluntario izateak merezi du.

**7. Zergatik parte hartu duzue boluntarioen inguruko lortia erakusketan?**  
Gizarte Zerbitzuek eskatu digutelako. Erakusketarekin lan polita egin dute eta bere emaitza izaten ari da. Gaur bertan (asteartea) gure boluntario taldean interesa duen neska bat hurbildu zait.

Erakusketa boluntario taldeak eta euren lana ezagutarazteko tresna polita dela iruditzen zait. Gu 2001etik gaude lanean eta jendeak ezagutzen gaitu, baina lortia erakusketan ikustea ezberdina da.

**8. Zure inguruan boluntario gehiago ezagutzen dituzu zuen taldekoez aparte?**  
Bai, boluntariotza ezberdinak dira, baina egiten dira. Elizan, abesbatzan, belenzaleak, Sutegin txikiekin lan egiten dutenak ... dena da boluntariotza.

**9. Deskonektatu daiteke? Ala jendea betiko izaten da boluntario?**  
Badago boluntariotza utzi behar izan duen jendea, etxeko norbait zaindu behar zuelako, edo ikusmena galtzen hasi delako ... gauza askorengatik. Badago garai bat gauza bati zure denbora eskaini ahal diozula eta beste bat beste gauzei eskaini behar diezuna. Ezin bada, ezin da.

**10. Zergatik pasa beharko luke jendeak lortia erakusketatik?**  
Inguruan duenaz informazioa jasotzeko, inguruko boluntario taldeen berri izateko. Gure kasuan norberak bere etxean egiten du lan, norberak laguntzen du bere etxetik, eta hori guztiok egin dezakegu. Hori norberari atera behar zaio, baina probatzen baduzu ziur gustatuko zaizula.

**11. Zuekin bat egiteko nora jo behar da?**  
Astearte eta ostegunetan pasa daitezke Olaztiko jubilatuen etan. Ildo honetan, ez da gehiegi behar. Ez duzu apartekorik jakin behar. Kalatuak eta gauza ikusgarriak egin ditzakezu, baina helburua berotzea da, eta, horregatik, puntu boboarekin nahikoa da.

Olaztiarrez gain, Altsasutik bi boluntario daude gurean, Etxarrietik bat, Donostitik bat eta Burgoetik bat. Laguntza ongi etorria da, etortzen den tokitik etorrita.

Zure erosotasunerako,  
Guaixe Komunikazioa

**Mimoz,  
tentuz, ilusioz  
egindako  
lanak**

**Guaixe KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275 / argi@guaixe.net  
guaixekomunikazioa.blogspot.com